


Sexu Bortizkeriaren kontrako neurriak



*Sexu Bortizkeriaren Aurkako
Emakumeen Plataforma*

AZAROAK 25, SEXU BORTIZKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Sexu Bortizkeriaren Aurkako Emakumeen Plataforma 1998. urteko urtarrilean sortu zen, emakumeek jasaten duten bortizkeriaren aurrean indarrak batzeko helburu zuela. Eta aipatu helburua lortzeko premiazko, prebentziorako eta sentsibilizaziorako neurriak planteatu eta, neurriak zein motel hartzen diren salatze hainbat ekimen burutu du, besteak beste, Udaletxeetan mozioak aurkeztu, azaroaren 25ean, Sexu-Bortizkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren manifestazioa antolatu, Nafarroako emakumeen egoeraren jarraipena egin, etab.

Plataforma honetan parte hartzen dugun emakumeok eta giza taldeok ez dugu bortizkeria mota hau zigor gabe gelditzea nahi, ez dugu onartzen une pribatuarekin elkarturik dagoen gaitzat hartzea, eta arazo honekin amaitzea ahalbideratuko duten neurri publikoak zein sozialak hartu behar direla defendatzen dugu. Sexu Bortizkeria Giza Eskubideei dagokien gaia da eta honela landu behar dute erakunde publikoek, hots, egoera hauek bizi dituen edozein emakumek aipatu egoerengandik aldentzeko erabaki errealak har ditzan beharrezkoak diren baliabideak eskainiz.

Sexu bortizkeriaren, edota tratu txarren aurrean, emakumezkoek zein gizonezkoek gure kontrako jarrera erakutsi behar dugu, jarrera aktiboa hain zuzen ere. Hau da, sexuen berdintasunean oinarritutako pertsonen arteko elkarbizitza erraztuko luketen neurri prebentiboak bultzatu.

Ildo honi jarraituz, bere garaian Plataformak Sexu Bortizkeriaren Aurkako Neurri Integralen Legea landu zuen. Orduz geroztik aldaketa batzuk eman direnez, aurreko neurriak berraztertu eta Nafarroako egungo errealitatera egokitzen beharturik sentitu da. Eta lan honen ondorioz, esku artean daukazu Sexu Bortizkeriaren Aurkako Neurri Integralen Bigarren Plana dugu.

XXI. mendean, oraindik orain Nafarroako gizartea, eta sexu bortizkeria jasaten duten emakumeak bereziki, erantzun global baten zain daude, alegia, Plan honi Lege izaera ematearen zain.

Premiazko eta prebentziorako neurriak

Jokabide bateratu eta integralaren protokoloa

Etxeko tratu txarrak eta eraso sexualak emakumeen aurka ematen den bortizkeriaren aurpegia desberdinak dira, bortizkeria hau adin, giza talde, kultura eta lurralde guztietan ematen dela eta, biztanleriarengan duen eraginagatik, dimentsio handiko gizarte-arazo bilakatu da.

Kasu gehienetan, eraso mota hauek bizi izan dituzten emakumeak babesik gabeko egoeran aurkitzen dira. Hau dela eta, botere publikoen aldetik, biktimen babes integrala ziurtatuko duten esku-hartze koordinatua eta jokabiderako prozedura homogenoen ezarpena beharrezkotzat jotzen dugu. Hots, Nafarroako Foru Komunitatean eragina izanen duen tratu txar edota eraso sexualen biktimak diren emakumeekiko arretarako "instituzioen arteko koordinazio akordioaren protokoloa". Aipatu Protokolo hau biktimen babes integrala ziurtatzeko gizarte mailan, osasun mailan, polizi mailan eta maila juridikoan behar diren jokabide eta baliabideen erabilera egokiena ezartzen lagunduko duen koordinazio eta kolaborazio markoa izango litzateke.

Neurri juridikoak

1.- Nafarroako Abokatuen Elkargoari eta Administrazioari dagokio, emakumeei laguntza eta orientazio juridikoa ematea, betebeharra duen Emakumeen Laguntza Zerbitzuaren existentziaren berri ematea, azalduz zerbitzu honek goardia eta aholkularitza, defentsa eta akusazio-zerbitzuak eskaintzen dituela, emakumeek jakin dezaten eraso ematen den momentutik laguntza juridikoa edukitzeko aukera daukatela. Halaber, "estante administratibo" direlakoei eta zentro guztiei, hots, auzitegi, osasun zentro, etabarrei, emakumeena den eskubide honen berri eman dezaten eskatu.

1.1.- Epaiketa mota guztietan, Falta epaiketak barne, akusazio eta aholkularitzarako eskubidea aitortu.

1.2.- Emakumeari doako Justiziarako eskubidea aitortu diezaioten eta Doako Asistentzia Juridikoaren Legeak dionaren babespean, emakumeen aurkako tratu txarren kasuetan, familia interes kontrajarrien existentzia automatikoki aplikatu emakumeen diru-sarrerak baino ez kontuan hartzeko. Betebehar hau Lehenengo Instantziazatik bideratuko da, hau da, Orientazio Juridiko Zerbitzuan lanean diharduen abokatuaren bidez, honek, hala badagokio, emakumeen egoera ekonomikoa baino ez hartuz, aldeko txosten bat aterako duela.

2.- Emakume eta adin txikikoen aurkako tratu txarren kasuetarako dagoen Fiskaltza berezia, bere lana eraginkortasun eta azkartasunez burutu ahal izateko, behar diren giza-baliabide eta baliabide ekonomikoak jartzea. Halaber, aipatu Fiskaltza honi gertatu diren tratu txar kasu guztien, eta kasu bakoitzean jarritako salaketa ezberdinen berri ematea, tratu txarrak tartean dauden epaiketa guztietan Ministeritza Fiskalaren agertzea derrigorrezkoa izanen dela. Tratu txarren susmoa duten epaiketa guztietan, Falta epaiketak barne, Ministeritza Fiskalak akusazioa gauzatzen jarraitu behar du, nahiz eta biktimak salaketa atzera bota.

3.- Auzitegien aldetik, emakume eta adin txikikoen aurkako tratu txarreatatik irekitako prozesuen premiazko bideratzea ziurtatu, hala nola, epaiketak lehenbailehen burutzea adostea.

Hasieratik, mugatu eta gertakizunetan sakondu delitu edo falta izan den zehazteko. Era berean, salaketa gehiago izan den jakinaren gainean egon eta, hala izan bada, salaketa hauek guztiak auzitegi berean bideratu.

4.- Emakume eta adin txikikoen aurkako tratu txarretan espezializatuak eta bakarrak diren Auzitegiak izatea.

5.- Biktima agertu ahala, auzitegi-medikuak Osasun Zentrora, Polizi Zentrora edo Auzitegi Zentrora hurbildu daitezten.

6.- Epaitegietan bertan, bortizkeria delituen biktimei laguntza eskaintzeko tratu txarretan espezializatuak izanen diren Biktimentzako Arreta Zerbitzuak sortu. Tratu txarreatatik dagozkion kalte-ordainketen igoera eman.

7.- Tratu txarren biktimentzako babesaren arloa arautzen duten Kode Penal eta Krimeen-epaiketa Legea aldatzen dituen 1999. urteko ekainaren 9ko Legean biltzen diren, bai kautelazko zein behin-betiko neurrien aplikazioa eta garapena eskatu. Modu honetara, emakume eta adin txikikoen aurkako delituzko ekintza baten berri duen momentutik, epaileak, ezinbestez, erasotzak izan direnei babesaren eskaintza beharko die modu honetara:

7.1.- Erasotzailearen berehalako atxilotzea eta lekualdaketa epailearen dependentzietara, epailearen aurrean deklaratzeko.

7.2.- Familiar Epailea edo dagozkion Lehenengo Instantziari delituzko ekintzaren berri eman, bai beren erabilera eta gozameneko emakume eta seme-alabei etxe familiarraren kontzesioari, bai erasotzailearen etxe familiarreko kanporaketari nola etxeko kargei aurre egiteko laguntza ekonomikoa emateko obligazioari buruzko Aurretiko Behin-behineko Neurriak hartzeko.

7.3.- Emakume eta adin txikikoengana gutxienezko distantzi batera, etxera, lantokira,...., hurbiltzeko debekua.

7.4.- Armen berehalako atxikitze eta dituztenak epailearen edo poliziaren dependentzietan uzteko obligazioa.

7.5.- Erasotzailearen berrerortzea ematen bada, epaiketa atera bitartean presoaldi prebentiboa ezarriko zaio.

8.- Bortizkeria psikikoaren kasuan, ohiko izatearen kontzeptua kontuan hartzea eta zehaztea aplikatu ahal izateko.

9.- Auzitegiak kaltetuei, besteak beste, Emakumearen Arreta Zerbitzuko abokatu baten asistentzia edukiko duen erasotzailearen aurkako akzioen eskaintza egingo die, eskaintza hau, idatziz argi azaldu beharko diren haien eskubideen azalpen motz batez lagunduta joango delarik.

Tratu txarren kasuetan hartu beharreko neurri multzoa, Nafarroako auzitegi-barruti guztietako Instrukzio Epaille eta Lehen Instantziako epaille guztiei hedatzea aplikazio-konpromezu baten bidez.

10.- Kasu hauen sentiberatasuna eta eragin berezia kontuan hartuta, udaltzainak, polizia autonomoak eta polizia estatalak behar bezalako prestakuntza jaso duen pertsonala edukiko dute emakumeek etxean pairatutako bortizkeria edota sexu erasoengatik jarritako salaketei aurre egiteko.

11.- Sexu Bortizkeriari aurre egiteko ezarritako neurriei eraginkortasuna ematearren, Administrazio Publikoek, estamentu ofizialen iritzia ezezik, bere lana, ideologia edo borondateagatik, modu batera hala bestera, aipatu Sexu Bortizkeriaren biktimak diren emakumeekin harremanetan dauden emakume talde ororen iritzia ere kontuan hartuko dituzte.

12.- Tratu txarrak arintzearen, emakumeei publikoki eskaintzen zaizkien zerbitzu guztien arteko lotura bermatzea, kaltetuek izapide burokratikoaren aurrean berriro ere sufrimendurik pairatu behar izan ez dezaten.

13.- Neurri hauek eskaera egiten duten emakume guztiei ezarriko zaizkie, hiritartasuna edota bizileku baimenekin zerikusirik duen egoera administratiboa kontuan hartu gabe. Eraso edo esplotazio delitu baten biktimak direnen bizileku egoera legezkatuko da, baldin eta normalizaturik ez balego.

NEURRI SOZIALAK

1.- ZERBITZUAK

1.1.- Emakumeen Laguntza zentroak

Nafarroako Gobernuak egun Iruñean, Burlatan, Berriozarren, Tuteran eta Lizarran dauden Zentroei eta Altsasun dagoen Gelari jarraipena emateko behar den laguntza ekonomikoa ziurtatuko du. Nafarroa osoko beharren aurrekontua eginen da. Horretaz gain, Giza Zerbitzu egituraren laguntza edo arreta berdintzailea eta genero gaiari buruzko prestakuntza eskaintzen dela bermatuko du.

Zerbitzu hauek 20.000 biztanletik gorako herrietan eta eskualde buruetan derrigorrezkoak izanen dira, eta 8000 biztanleko, hala nola duten problematika eta behar espezifikoengatik, bereziki zigortuak diren gunek bakoitzean Laguntza Zentro bat egotea bermatuko da.

Emakume guztiei zuzenduak badaude ere, krisi egoera edo tratatu fisiko zein psikiko bezalako konfliktu larriak bizitzen ari diren emakumeek eta gizartearen sektore kaltetuenetakoek lehentasuna izanen dute.

Arretarako ordutegiak arratsaldeak bermatuko ditu.

Gai honetan esperientzia eta espezializazioa duten lizipinarteko talde osatuak egonen dira.

Zentro hauen oinarrizko helburuak honako hauek izanen dira:

- Harrera, argibideak eta orientazioa eskaini. Emozio-laguntza eta laguntza psikologikoa eman. Bakarkako lana eta talde lana burutu. Auto-estimua, autodefentsa,.. bezalako iharduerak antolatu.
- Bereizteko izapideak hastea ala ez hastea, erabakia edozein dela ere, krisi egoeran edo egoera berak hala eskatzen duenean, laguntza ematea. Tratatu txarren kasu larriengan eskainiko den laguntza trinkoagoa izanen da eta emakumearekin harremanetan jarri ahala hasiko da, emozio-laguntza, edota azterketa medikuen, kudeaketa juridikoen, baliabideen bilakaeraren prozesuetarako, etabarretarako erabiliko delarik.

Eskainiko den laguntza ez da izanen dauden baliabideei buruzko argibideak ematea eta beste zerbitzuetara igortzea, emakume bakoitzak erakutsiko duen arazoan inplikatzeko baizik. Hau da, krisia gainditzeko prozesu guztian haren ondoan egon, egoera bere osotasunean baloratuz eta, bere harremana haustea ala ez, edota harremana autonomia handiago batean oinarritutako harremana planteatzea erabakiaren gaineratik, bizitzari era autonomoago batez aurre egiteko emakumeak beharrezkoak dituen autoestimua sendotzea eta energia zein erabakitzeko ahalmena berreskuratu ditzan beharrezkoak diren urratsak ematen laguntzea.

- Oinarrizko Osasun Laguntza eta Lan Osasunarekin, hala nola Giza Zerbitzuko Zentro, Buru Osasun, Eskola Orientazioko Zerbitzu eta 112 bezalako Larrialdietarako Zerbitzuekin lan harreman estua edukiko da. Erakunde horiekin tratatu txarren egoerak antzemateko eta prebentzioa lantzeko egitasmoak garatuko dira.

1.2. - Larrialdietarako Zerbitzua:

Larrialdietarako zerbitzu hau 24 orduz eskainiko da. Emakumeari, eta hala behar bada, adin txikikoei, harrera egitea izanen da bere helburu nagusia, berehalako emozio-laguntza eta, egoeraren arabera, harrera emanez. Halaber, bere eskualdeari dagokion Emakumeen Laguntza Zentroarekin harremanetan jartzea.

1.3. - Babes etxeak eta larrialdietarako pisuak:

Sexu Bortizkeria jasateagatik beren etxea uztea erabaki baina babesik eta aterperik gabe dauden emakume eta hauen seme-alabentzako berehalako harrera-baliabidea izanen da. Baliabide hau erabiltzeko ez da beharrezkoa izanen alde zurretiko salaketa.

Babes Etxeak eta Larrialdietarako Pisuak sortzeko irizpideak finkatu beharko dira. Bitartean, Nafarroan, Babes Etxe handiago eta zentralagoaz gain, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izanen duten Tuteran, Lizarran, Baztanen, eta Mendi Aldean (gutxienez) kokatuko diren larrialdietarako pisuen sarea ere izanen da.

Babes Etxerako sarbidea emakumeak hala eskatzen duenean egingen da, hasiera batean laguntza eman dion Zerbitzutik, edota Larrialdietarako Zerbitzutik deribatu ondoren. Ez da beharrezkoa izanen beste baldintzarik betetzea, hala nola, salaketa jartzea, bereizteko izapidea, e.a.

Babes Etxeetan diziplina anitzeko taldeek ihardungo dute, zeintzuek bertaratzen diren emakumeei emozio laguntza, laguntza psikologikoa, egin beharko dituzten kudeaketen aholkularitza eta, Babes Etxean dauden bitartean eta prozesua irauten duen bitartean, laguntza ziurtatuko baitiete. Era berean, etxe hauetan dauden adin txikikoen beharrei erantzun beharko diete.

Babes Etxean dauden emakumeei zein adin txikikoei laguntza egokiena eskaintzeko, bertan 24 orduz profesional bat badagoela ziurtatuko da.

1.4. - Haurtzaindegi-jolastokiak:

0-12 urte bitarteko neska-mutikoentzat. Urte osoan zehar, goizeko 8,00etatik arratsaldeko 20,00etara zabalik egonen dira, beste behar zehatz batzuk kontuan hartuz. Zerbitzu hau oporraldi garaiak eta aisialdirako ordutegiek betetzen ez duten denborarako euskarria izanen da.

- Eskola-laguntzarekin eta auzo edo herrietako beste taldeekin koordinatuz burututako ihardueren bitartez, nerabeei

zuzendutako laguntza eta prebentzio-lana egingen da zerbitzu honen babespean.

Egoera hauetan aurkitzen diren emakumeen menpe dauden seme-alabak edo pertsona adintsuak gaixotuz gero etxeetan bertan zainduko dituen Zaindarien Sare-Zerbitzua sortu.

2.- PRESTAZIOAK

2.1. - Prestazio ekonomikoak:

- Emakumeak bere etxebizitza uztea erabakitzen duenean bere autonomia errazteko, Udaletxeek *larrialdietarako laguntza ekonomikorako kutxa espezifikoa* sortuko dute, kutxa hauek Emakumeen Laguntza Zentroetan, Larrialdietarako Zerbitzuan eta Larrialdietarako Pisuetan egonen direlarik.
- Emakumeak baliabide ekonomikorik ez duen egoeretarako, berehalakoa eta lan munduan sartu bitartean, pobrezia-atalasearen gainerako gutxienezko eta aldizkako diru-sarrerak (soldata soziala, oinarritzko errenta, gizarte eta familia-integratzaile laguntza...) ziurtatu. Gutxienezko diru sarrera hauetatik seme-alabengatik, pentsio ez zergagarriengatik,.. dagokien diru laguntzak ez dira deskontatuko.
- Eskola-gastuetarako, liburu, jangela eta eskolaz kanpoko iharduetarako, txangoetarako, etabarretarako diru-laguntzak.
- Hurrengo egunerako pilularen edota ez aukeratutako haurdunaldien etenaldien dohaintasuna Osasun Sistemaren barruan.

2.2. - Prestakuntza eta enplegua:

Sartze Soziolaboral Programetarako berehalako sarbidea izatea, non sartze soziolaborala ahalbideratzeko norbanakoentzako prozesuak diseinatuko diren, lanean hasi aurretiko prestakuntza, prestakuntza okupazionalerako kasu bakoitzak eskatzen dituen baliabideak aplikatuz. Prestakuntza prozesu guztia bekaduna izanen da, hauetan partehartzeagatik ordainsaria jasoko da alegia. Hau baita prestakuntza eta ondorengo lana ziurtatzeko modu bakarra.

Enplegu soziala lan merkatuan murgildu arte, prozesu honetan guztian laguntza izanen da.

Programa Europarrak diseinetzako momentuan emakumeen kolektiboari lehentasuna eman.

INEM delakoari harremanen haustura eman eta emakumeak baliabide ekonomikorik ez daukan kasuetan, lana lortzeko zerrendetan lehentasuna izatea eskatuko zaio.

2.3. - Etxebizitza:

Berehala erraztuko dira Udaletxe nahiz Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren etxebizitzak, edo, besterik ezean, gutxienez 6 hilabetez eta 2 urterainoko epean etxebizitza baten alokairua ordainduko da, beti ere emakumeak gutxieneko diru sarrerak baldin baditu. Emakumearen egoera ekonomikoa zertxobait aldatzekotan, gehienez bere diru sarreren %15 ordainduko du.

Tratu txarrak luzez jasan ondoren, egoera honekin apurtzea erabaki eta prozesu berri bat hasterakoan, egoera prekarioan eta etxebizitzarik gabe aurkitzen diren emakumeei sustapen publikoko etxebizitzaren eskuratzean lehentasuna eman, alokairurako, erosteko, etabarretarako lagunduz. Laguntza hauek, alokairuaren kasuan bi urtez eta erosketaren kasuan 5 urtez luzatuko dira.

Gizarteratzea ahalbideratzeko etxebizitzaren dekreturako sarbidea izan Nafarroa osoan, eta bereziki, egun ia-ia ezinezkoa egiten den, Iruñean eta Iruñerrian.

Tratu txarrak denbora luzez jasan ondoren, kalte psikologiko inportanteak pairatu eta nolabaiteko babesar behar duten emakumeentzako babespean dauden etxebizitza edo egoitza txikiak izan.

2.4. - Laguntza Psikologikoa:

Zerbitzu publikoek egoera hauek pairatu dituzten emakume eta beren seme-alabei, tratamendu psikologiko espezializatua eta doakoa eskainiko die, krisi garaian nola terapeutika-prozesuan zehar.

2.5. - Aisia eta denbora libre:

Emakume hauen harremanak sustatzeko aisialdi eta denbora librerako iharduerak burutu, horretarako egokiak diren lokalak erraztuko direlarik.

Bortizkeria edo bereizketa egoerak bizi izan dituzten eta diru-sarrera nahikorik edo batere ez duten emakumeentzako oporraldi programak eta aisialdirako lekuak eskaini.

2.6. - Informazio eta sentsibilizazio soziala:

Instituzio Publikoek beharrezkoak diren bitarteko guztiak erabiliko dituzte, populazioak oro har, eta emakumeek bereziki, egun dauden baliabide guztiei buruzko informazio nahikoa izan dezan.

Era berean, emakumeek jasaten duten bortizkeriaren aurkako eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko sentsibilizazio kanpainak bultzatuko dira.

“Pertsonen arteko Berdintasunaren aldeko” talde eta zerbitzuen sorrera bultzatu.

Sexu-bortizkeriaren kasuetan Instituzio Publikoak akusazio partikular moduan aurkeztuko dira, batez ere babesik ez duten emakume edo emakume etorkinen kasuetan.

2.7. - Emakume etorkinentzako Laguntza Programa Espezifikoak:

Emakume hauen hizkuntza, kultura eta behar bereziak kontuan hartuko dira. Foru Komunitatean dagoen edozein emakumek, emakume etorkinak barne, diru-laguntza hauek eskuratzeko eskubidea izanen du, bizileku baimenari dagokion egoera administratiboa kontuan hartu gabe.

Egun Atzerriartasun-Legeak betetzen ez dituen eta orain garatzen ari garen Lege honetan biltzen diren laguntza juridikoa eta psikologikoa doakoa ziurtatuko dira.

2.8- Erasotzaileari zuzendutako Programak, Emakumeen aurkako bortizkeria zalantzan jartzeko Programak eta gaizki ulertutako maskulinitateari buruzko Programak.

Emakumeek zein gizonak eskatuta, honako helburu hauek izango dituzten programak martxan jarriko dira: pertsonaren errekupeazioa, berdintasunaren kontzientziakzioa, feminizazioaz eta maskulinitateaz eztabaidatzea eta indarkeria eta botererik gabeko pertsonen arteko tratu berdintzailea sustatzea.

NEURRI HEZITZAILEAK

Suxu Bortizkeria gaia landu eta Hezkuntza arlotik zein neurri proposatu behar ditugun aipatu indarkeriarekin amaitzeko aztertzerakoan, neurriak bi multzotan sailkatzea erabaki dugu:

a.- Sexu Bortizkeriarekin amaitzeko behar diren neurri espezifikoak.

b.- Sexu Bortizkeria emakumeok jasaten dugun diskriminazio egoera larri honen islada besterik ez dela, eta honi aurre egiteko modu bakarra gizon zein emakumeok aukera berdinez gozatuko dugun gizarte baten alde hezitzea dela, hezkidetzaren proiektua landuko duen eskola lortzeko behar diren neurriak.

a. - SEXU BORTIZKERIAREKIN AMAITZEAK ESKATZEN DU:

1.- Ikastetxeetan tratatu txarren eta eraso sexualen prebentziorako iharduerak burutzea.

1.1.- Gazteen heziketan inplikatuak dauden profesional guztiak (hezkuntza sisteman, denbora librean, ...) formatuz ikasleekin aipatu indarkeria mota hauekin zerikusirik duten aspektuen prebentziorako iharduerak burutu ahal izateko.

1.2.- Jarrera bortitzak fisiko eta psikikoen prebentziorako metodo ez bortitzak erabiliz konfliktu egoerak konpontzeko estrategien inguruko iharduerak burutuz.

1.3.- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako ikasmateriala hezkidetzailleak osatu eta banatzera animatuz.

1.4.- Bai helduen irakaskuntzan, DBHn emakumeen aurkako indarkeria eta indarkeria egoera hauei aurre egiteko baliabideei buruzko moduluak antolatuz.

2.- Tratatu txarrak antzematen den ustezko kasuak detektatu, sentsibilizatu eta zerbitzu sozialak jakinaren gainean jarri, edo Akordio Instituzionalaren Protokoloa martxan jarri ahal izateko, hezkuntzaren adituak sentsibilizatuz eta formatuz.

3.- Hezkuntza Departamentuari dagokionez: eraso sexualak delitotzat hartu, erasotzaileari exijitu behar zaizkion erantzunkizunak aztertu eta behar diren neurriak aplikatu. Halaber, ikastetxeetatik Hezkuntza Departamentura eraso sexualen informazioa edota salaketa bidaltzen denean, hauei erantzuna eman.

4.- Ikastetxe mailan, Ikastetxearen Arautegi Organikoan pertsonen arteko errespetuan oinarritzen den bizikidetasun arauak zehaztu beharko lirateke, hala nola, sexu bortizkeriaren aldeko jarreraren gaitzespena erakutsi eta jarrera hauen aurkako neurri zuzentzaileak edo zigortzaileak adostu.

Zentzu berean, eraso sexual hauek gertatu ahala ikastetxeak martxan jarri beharko lituzkeen jokabideak era planifikatu batean ipini.

b. - HEZKIDETZA

Eskola komunitatearen sentsibilizazioa.

1.- Eskola Komunitatea emakumeentzako eta gizonentzako aukeraberdintasunaren printzipioaz sentsibilizatzea.

1.1.- Irakasleei, irakasle ez diren langileei, ikasleei eta familiei zuzenduriko sentsibilizazio ekintzak garatzea, hezkidetzaren oinarrizko irizpideei buruz.

1.2.- Hezkidetzari buruzko materiala eta hezkidetzako materiala eskola komunitateko kideen artean zabaltzea.

1.3.- Hezkuntza etapa guztietan, emakumeen eta gizonen partehartzea orekatuagoa izan dadin sustatzea, bai curriculumeko materialetan, bai ikastetxeetako erantzukizun eta eginkizunak banatzeko orduan, ikasleentzako erreferentzia-eredua izan dadin. Horretarako, ikasleek esku-hartze duten ikastetxe-organoetan ikasle-nesken ordezkariak proportzionala izatea bermatuko duten neurriak hartzea.

1.4.- Nafarroako Eskola Kontseiluari Hezkuntza Sistemari aukeraberdintasunaren garapenaren txostena argitaratzea, eta urteko txostenean hezkidetzaren ikuspuntua sartzea eskatzea.

Ikastetxeetako hezkidetzako proiektuak

1.- Unibertsitateko beherako etapa guztietako irakasleei hezkidetzari buruzko prestakuntza ematea.

1.1.- Ikastetxeetako prestakuntza-proiektuetan generoaren ikuspegia sartzea. Hala nola, irakasleentzako urteko prestakuntza planen barruan, hezkidetzari buruzko ikastaro berariazkoak sartzea. Ikastaro hauek hezkuntzako ikuskaritza Teknikoko pertsonal guztiari, zuzendaritza talde guztiei eta eskolaz kanpoko jardueren ardura dutenei zuzenduko zaizkie.

2.- Ikastetxeetan hezkidetzako proiektuak sustatzea.

2.1.- Hezkuntza Departamentuaren aldetik, neska eta mutilen arteko berdintasun eskubidea errespetatuko duen hezkidetzak eskola bultzatuko dela ziurtatzea.

2.2.- Hezkuntzako Laguntza Zerbitzuetan hezkidetzako esperientziak bultzatzeko eta arlo horretan prestakuntza emateko behar den beste langile izango direla bermatzea eta ziurtatzea.

2.3.- Ikastetxeetako hezkidetzako proiektuak bultzatzea laguntza zerbitzuetatik hezkidetzak proiektuak garatzeko behar dituzten antolamenduzko baliabideak eskainiz ikastetxeei. Halaber, behar diren baliabideak eskaintzea ikastetxeei, nork bere hezkuntza eta curriculum proiektuak eta bere antolamendu eta funtzionamendurako arautegia generoaren ikuspegitik presta ditzan.

3.- Neska-mutilen garapen integralerako aukera ematea esparru intelektualean, afektibo-sexualean eta harremanetarakoan, horri esker maila pertsonalean, familiarrekoan, gizartean eta lan munduan pertsona autonomoak izateko behar den gaitasuna lor dezaten. Ikastetxeetako Tutoretza Ekimen Planean (TEP) nagusi diren maskulinitate zein feminitate ereduak buruzko hausnarketarako eta eraso askoren azpian dauden eragileak aldatzeko sail berezia sartzea. Aipatu TEPen pertsonen gaitasunetan oinarritutako ikasketak gida eta gida profesionalak sartuko dira.

4.- Ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuak "menpekotasuna-dominazioa" jarrerak uxatzea, pertsona guztien gorputzarekiko errespetua, autoestimua, ziurtasun pertsonala eta afektibitatea oinarri dituzten giza harremanak bultzatuz.

5.- Hezkuntza maila guztietako curriculumak osatzen dituzten arlo guztietako edukiak, hala kontzeptuei dagozkienak, nola prozedurak eta jarrerak dagozkienak, berrikusi eta aberastea ikuspegi ez-androzentriko batetik. Horren ondorioz, emakumeek gizona garatzeko egindako ekarpena azaldu beharko da, eta mendetan zehar hala emakumeek nola gizonen garatu dituzten gaitasun, balore, jarrera eta ezagumenduak modu berean baloratuko dira.

6.- Orain arte aipatutako helburu guztiak lortzeko, Berrikuntza Pedagogikoko Sekzioan eta Irakasleen Laguntza Zentroetan Hezkidetzarako Aholkularitza Espezifikoa berreskuratzea gutxieneko baldintza gisa.

Hezkuntza materialak

1.- Hezkidetzaren ikuspegitik eskolako materialen berrikuspen sistematikoa eta erabilera kritikoa sustatzea hezkuntza maila guztietan, helduen hezkuntza barne. Testu liburuak baimendu eta gainbegiratzeko araudian, emakume eta gizonentzako aukera-berdintasunari buruz ezarrita dauden irizpideak zorrozki aplikatzea eta emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunaren printzipioa urratzen duten materialak merkatutik at uztea.

2.- Hezkuntza Departamentua, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Nafarroako Emakumearen Institutoaren partehartze zuzena bermatzea materialak osatu eta banatzeko, behar diren baliabideak (ekonomikoak, materialak, e.a.) jarritz.

Ikasle etorkinak

Orain arte aipatutako neurri guztiak, Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsona guztiei ezarriko zaizkie. Ikastetxeetan, ikasle etorkinen integratze prozesua aurrera eramaterakoan, kontuan hartuko dituzte aipatu ikasle hauen jatorrizko kultura, hizkuntza, ohiturak, etab.

OSASUN NEURRIAK

Honen konplexutasuna kontuan hartuz, osasun sistemaren barruan diharduten erizainen, laguntzaileen, gizarte langileen, psikologoek eta auzitegi-medikuen, hots, pertsonal mediko guztien arteko koordinazioa bermatuko duen disziplina arteko lan-taldea sortzea ezinbestekoa da.

Halaber, ezkutuzko sexu bortizkeriari aurre egiteko edota eskaera espezifikoek arreta egokiena eskaini ahal izateko, lehen aipatutako pertsonalaren sentsibilizazioa beharrezkoa da. Bi kasu hauetan, Gizarte Lanaren Zerbitzura deribatuko dira, bertan balorazioa, esku-hartzea, deribazioa, laguntza eta koordinazioa egin dezaten. Gaiaren konplexutasunak zerbitzu bakoitzean disziplina arteko esku-hartzea eskatzen du.

Maila guztietan Oinarrizko Osasun Arreta egon behar da, bai Lehen Mailako Arretan eta Buru-Osasunean, bai Espezializatuan, hots, Emakumeen Laguntza Zentroetan, COFES direlakoetan eta adostuak eta eguneratuak egonen diren Jokabiderako Protokoloak dituzten ospitaletan.

a. - Osasun Eremurako jokabidea:

- Kotsultara etortzen den biktimari egon litezkeen kalte fisiko zein psikikoen asistentzia eskaini. Beti egiten den moduan,

dagokion historia klinikoa ireki edo, aldez aurretik beste bat egotekotan, datu berriak erantsi. Hala beharrezkoa den kasuetan, gaixoa ospitalera edo larrialdietarako zerbitzuetara bideratuko da.

- Sexu bortxakeria edo eraso fisiko zein psikikoak jasan dituzten emakumeei larrialdietarako zerbitzuetan arreta eman.
- Zerbitzu integrala eskaini ahal izateko, ginekologo, auzitegi-mediku, erizain, gizarte-langile eta psikologoek lana koordinatuko duen Jokabiderako Protokolo Bateratua ezarri. Protokolo hau martxan jarriko da eraso kasu guztietan, baita sexu-erasoen kasuetan nahiz eta aurretiko salaketarik ez izan.
- Protokolo horretan bete beharreko txostenaren eredia agertuko da. Txosten hau, tratu txarreatatik kalte fisiko zein psikikoen susmoa dagoenean, Goardiazko Auzitegira eta Fiskaltzara igorriko zaie.
- Gizarte Langileek izan beharko esku-hartzea da: harrera, ingurune eta familiaren balorazioa, laguntza, kudeaketak burutzen lagundu, koordinazioa, beste zerbitzuetara igorri eta egon daitezkeen beste arazo sozialak detektatu.
- Ospitaletan behar diren txandak ezarri Gizarte-Langileen Pertsonala ordu guztietan badagoela ziurtatzeko.
- Halaber, prebentzio arloa landu arren, beste errekurtsio eta instituzioekiko lan-harremana mantenduko da.